

# IRUNGO EMAKUMEEN LANBIDEAK

## PROTITUTAK. Sexu langileak

### Nor tzuk ziren:

---

Ama Xantalenen kalearen hasieran, Irungo burdelik ezagunenetako bat egon zen. Etxea erre egin zen 90eko urteetan, eta han lan egin zuten emakumeen omenez, mugimendu feministak izen hau jarri zion plaza honi: XXX

Udal dokumentazioan ez dago aztarna askorik prostituten gainean, hain zuzen beraien lanaren izaeragatik, baina bakarren bat bada, eta batzuetan oso kontu deigarriak eta bitxiak dira. Deigarriak ziren, esate baterako, “El Guerrilla” izenekoaren alabak. XIX. mendearen erdialdean, behin eta berriz agertzen dira ahizpa hauek, eta agerian uzten dute emakume pobre eta prostituituen bizimodua, zeharo kontserbatzailea eta hipokrita zen gizarte batean. Hala, ahizpa hauek protagonistak dira prostitutak onbideratzeko programa batean –zeinak huts egin baitzuen–, Policarpo de Balzolak eta Juan José de Olazabalek diseinatu José Peñaren herentziako diruarekin; hilketa bateko lekuko gisa ere agertzen dira, bai eta traslado baten biktima gisa ere, sexu bidezko gaixotasun bat harrapatu zutelako.

Azken hori da, osasunarena hain zuzen, prostitutak dokumentazioan agertzeko beste arrazoietako bat. Aurreko mendeko 20ko eta 30eko urteetan, Udalak behartzen zien sexu langileei aldi behin azterketak egitera herriko medikuarekin, ziurtatzeko gaixotasunak ez zirela zabalduko. Eta, azkenik, erroldetan ere agertzen dira, zehatz-mehatz identifikaturik eta autodefiniturik, eta hori ez zen gertatzen, adibidez, beste lanbide batzuekin. Horrela, badakigu 1925ean Irunen prostituzioan aritzen ziren ia emakume guztiak Irundik kanpokoak zirela. Ziurrenik, emakume prostituituek beren herrietatik kanpo jarduten zuten prostituzioan, hain zuzen ere beren familien izen ona babesteko eta bizimodu anonimoago eta libreago bat edukitzeko.

### Non topatu dezakezu:

---

[Paseo interaktiboak](#)

Parean elkartea eta Gipuzkoako Foru aldundia

